MUGARIK GABE

2025eko TXOSTENA



mugarik gabe

mugarik gabe

Garapenerako Lankidetza GKEa den Mugarik Gabetik herrien arteko globala eta interdependientea den garapenean sinisten dugu. Gure lana, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango den giza garapen integrala lortu nahian, tokia-tokiko hasten dugu mugetik haratago zabalduz.

ARABA
"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA
Vicente Garamendi auzunea 5, behea
48006 Bilbao
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA
Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea
20009 Donostia
943 445 977– gipuzkoa@mugarikgabe.org

www.mugarikgabe.org
Mugarik Gabe
@mugarikgabe
@mugarikgabeongd
@MugarikGabeONGD

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0) Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_

MUGARIK GABE

2025eko TXOSTENA

mugarik gabe

ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA BIZITZA JASANGARRIAK HERRI INDIGENAK

2025an zehar, Bizitza Jokoan kanpaina Bizitza Jasangarriak eta Herri Indigenak-eko Hezkuntza lantaldeko protagonista izan zen. Bigarren fase honetan bideratutako aldaketa-proposamenak eta alternatibak sustatzera bideratu gara, hiru eskubide defendatzeko: 1) herri indigenen lurraldean ezarri nahi duten edozein proiektu estraktibistaren aurrean kontsulta aske eta informaturako eskubidea; 2) guztientzako lurralde jasangarrirako eta ingurumen osasuntsu zein osasungarrirako eskubidea; eta 3) lurralde hori defendatu ahal izateko eskubidea.

Kazetariekin 2024an egindako bidaia horren balio komunikatibo gogoangarriaren ondoren, bertan dokumentatutakoaren parte handi bat zabaldu zen 2025ean, hain zuzen ere aipatutako eskubideen babesaren harira Mexikon, Hondurasen eta Guatemalan aztertutako hiru kasu horiek.

Hedapen eta intzidentzia hori, bai eta bizi garen krisialdi ekosozialari aurre egiteko aukera proposamenak ere, formatu eta ekintza desberdinen bidez egin dira.

- Bilbon ekainaren 25 eta 26an ospatutako «Bizitza Jokoan 2» Udako Ikastaroak hizpide hartu zuen trantsizio energetikoaren erronkak begirada kritiko batekin, zalantzan jarriz berde eta jasangarritzat jo ohi den horren benetakotasuna, eta Antonio Turielek, Julia Martík eta Isidro Jiménezek aurkeztu zituzten haz-





kunderako proposamen ekofeminista alternatiboak.

- Latinoamerikako emakume defendatzaile eta komunikatzaileen bira: urrian gurekin izan genituen Quimy de Leon (Prentsa Komunitarioa - Guatemala) eta Judith González (Alianza Sierra Madre AC - Mexiko) Euskal Herritik mugitzen, eta horiei batu zitzaien Dalila Argueta Honduraseko (Guapinol) baina Bizkaian bizi den defendatzailea, eta hiru komunikatzaile eta defendatzaileek osatu zuten ikertutako hiru kasuen herrialdekako ordezkaritza. Egonaldian zehar parte hartu zuten unibertsitateekin, erakunde publikoen intzidentzia espazioetan eta komunikabideen elkarrizketetan.

- Unibertsitate-topaketak: 2025 bitartean EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko ikasgeletan presentzia nabarmena izan dugu. Salaketaren dimentsioa bereziki indartu zuten aurreko puntuan aipatutako kideek, aldiz,



Fikzio Klimatikoko tailerretan landutako proposamenak eta alternatibak Isidro Jiménez (Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea eta aktibista ekologista) irakaslearen gidaritzapean egin dira eta gure taldearen eskutik dinamizatu dira Desazkundea, Bizitza Jasangarriak eta Ekonomia Feminista bezalako gaien inguruko tailerrak.

Guztira, 14 unibertsitate-espazio gauzatu dira 2025ean zehar, 8 Gipuzkoan eta 6 Bizkaian, beti unibertsitate bakoitzeko ikasle eta irakasleekin lankidetzan egonik.




Horien guztien artean, aipagarria da Leioako Gizarte Hezkuntza Fakultatean egindako Radio-Showa, irakasleekin lankidetzan eta Piedra de Toque podcastarekin elkarlanean. Espazio honetan gertatu zen atal baten zuzeneko grabaketa eta bertan parte hartu zuten dokumentatutako hiru kasuen ordezkariek. Jarraian, gonbidatuekin eta ikasleekin hausnarketarako espazio bat zabaldu zen, sustatzeko hartu-eman zuzena eta enpresa transnazionalen, klima-aldaketaren zein gizarte mobilizazioaren inplikazioari buruzko hausnarketa kritikoa.

Sentsibilizaziorako beste espazioak: 2025ean zehar, bigarren mailako hezkuntzan ere egin ditugu tailerrak, IES Artaza Romon, Dalila Argueta defendatzailearen eskutik. Ekintzak uztartu zituen erakusketaren bisita gidatu bat hausnarketa partekaturako espazio batekin, non ikasleek eztabaidatu zituzten enpresa transnazionalek Hegoalde globalean duten eragina, klima-aldaketa, gazte mugimendu sozialen garrantzia eta klima-krisiari aurre egiteko praktika eta narratiba itxaropentsuak sortzea.

- Bizitza Jokoan 2 erakusketa: Zoiartze Puentek egindako ilustrazioen eta hiru ikerketetatik ateratako datuen bidez, meatzaritzako proiektu estraktibisten aurrean lurra eta lurraldea babesten duten Mexiko, Guatemala eta Hondurasko defendatzaile eta erresistentziarako komunitateek aurrera eramandako borrokak espazio publikora eraman ditu erakusketak.



Erakusketak bi formatu desberdin ditu, bata panel handiez osatua eta bestea totem formatuan, eta horrek errazten du espazio eta testuinguru anitzetara egokitzea. Donostia, Irun eta Eibarreko kultura, hezkuntza eta garraio publikorako hainbat espaziotan erakutsi izan da. Bizkaian, erakusketa egon da unibertsitateetan, ikastetxeetan, kiroldegietan eta Bilboko metroko lau geltokitan, irismena askotariko pertsonei zabaltzeko.



- Ikus-entzunezkoak eta beste komunikaziorako elementuak: Bizitza Jokoan 2 web-orri espezifikoa diseinatua izan da dokumentatutako hiru kasuak modu dinamikoan eta irisgarrian zabaltzeko formatu desberdinen bidez.

Kanpainaren esparruan sortutako material komunikatibo ezberdinak modu zentralizatuan partekatzeko plataforma gisa sortu da, horien artean erakusketa, irakurketa errazeko argitalpena eta ikus-entzunezko edukiak.

Azken honen barruan sartzen dira kanpainako momentu desberdinetan zehar egindako bideoak, hala nola Guatemalako bidaian eta 2025eko urrian hiru kasuen ordezkariek Euskadin egindako biran egindakoak, erresistentzia eta salaketa prozesuak ikusarazten eta proiektuaren irismena eta eragina indartzen laguntzen.

2025 urtea amaitzearekin batera trantsizio garaia iritsi zen Bizitza Jokoan 2ren eta «Jasangarria edo JasanEZINA?» kanpaina berriaren artean, zeinetan lantzen den lurraldearen babesa kapitalismo berdearen aurrean. Oinarritzen da gaur egungo «garapen jasangarriko» ereduen analisi eta salaketan, zalantzan jartzen ditu «energia berdeen politikak» eta Hegoalde zein Iparralde globaleko baliabide naturalen ustiapen proiektu transnazionalen esparruan sortzen diren lurrari eta lurraldeari lotutako gatazkekin politika horiek duten harremana ikusarazten du.

ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA FEMINISMOAK

GENEROAGATIKO INDARKERIA POLITIKOA

Patriarkatuaren erreakzioak eta eskubideen aurkako diskurtsoen gorakadak markatutako testuinguruan, emakumeen eta sexu-genero disidenteen eskubideak defendatzen dituzten horien aurkako indarkeria politikoa hazten ari da mundu eta toki mailan. Indarkeria horren aurka artikulatu ahal izateko, proposatu dugu horien eraginen ezagutza maila handitzea gure aktibismoetan, politika instituzionalean eta kazetaritzaren zereginetan.

Horretarako, 2025eko urte honetan hasi dugu «generoagatiko indarkeria politikoaren» estrategia berri bat, cisheteropatriarkatuaren aurka borrokatzen duten horiek jasandako indarkerietan arreta jartzea helburu duen kontzeptu zabala.

Estrategia horri hasiera emateko, Rita Segatok Bilbon emandako konferentzian honako galdera luzatu genuen: *Zergatik feminismoa eskuinaren erasoen erdigunean dago?*



Martxoan bi hitzaldi arrakastatsu egin genituen Silvia Federici eta Justa Monterorekin EAEko beste toki batzuetan eta EHUn, eta bertan jorratu zituzten feminismoak dituen erronkak gizarte mugimenduen kriminalizazioaren aurrean.

2025eko urriaren amaiera aldera, hainbat ekintza antolatu genituen Generoagatiko Indarkeria Politikoaren inguruko analisia zabaltzeko.

Alde batetik, «*Frente a la ola reaccionaria, ¡ARRAUN Feminista!*» jardunaldiak antolatu genituen. Hasi ziren **performance artistiko** batekin Guggenheimaren zabaldegian, abortuaren zigorragatik El Salvadorreko emakumeak kriminalizatzearen inguruan. Bestetik, «Beatriz abrió el camino» dokumentala ere proiektatu genuen La Sinsorgan, Bilbon, Beatriz vs El Salvadorreko Estatuaren kasuaren inguruan.



Ibaiondoko Udaltegian (La Bolsa) egindako gainerako jardunaldietan parte hartu zuten Euskal Herriko, Estatuko eta Latinoamerikako hainbat hizlarik eta horiekin sakondu ahal izan genuen gizarte mugimenduetan, politika instituzionalean eta lurra zein lurraldearen babesean dagoen indarkeria politikoaren gaian.



Elkarrizketa espezifiko batzuk egiteko aukera izan genuen, non gaian sakondu genuen kazetari, politika arloko emakume eta hainbat tokitako kolektibo sozial ezberdinekin, hala nola Basauri eta EHUkoekin.

Jardunaldiei amaiera emateko, Bilboko Zirika Kultur Gunean Irantzu Varelak umorezko bakarrizketa bat egin zuen eta berak bizitako indarkeria politikoa kazetari feminista izateagatik partekatu zuen, bai eta horri aurre egiteko tresnak ere.

Bestalde, beste bi **hitzaldi** antolatu genituen **EHUn**, bata El Salvadorreko (Mariana Moisa) eta Nikaraguako (Nikaraguako Feministak Euskal Herrian) mugimendu feministen aurkako indarkeria politikoan oinarrituta eta, bestea, espazio digitaletako indarkeria matxistak zein nola Adimen Artifizialak handitzen dituen indarkeria horiek lantzera bideratuta, Mujeres que Crean eta Pikara Magazineko emakumeekin batera.

Web orri berri bat garatu dugu generoagatiko indarkeria politikoaren ikuspuntu desberdinak biltzeko: bideo-elkarrizketak, errelatoria grafikoak, latitude desberdinetan presente dauden olatu erreakzionarioa zein eskubideen aurkako diskurtsoei aurre egiteko eta aztertzeko balio duten artikuluak eta ikerketak.

https://violenciasmachistas.mugarikgabe.org/eu/azala/



ADIMEN ARTIFIZIALA FEMINISTA IZAN DAITEKE?

Gasteizeko 2025eko Arte eta Giza Eskubideen Deialdiaren testuinguruan, Feminak kolektiboa lagundu genuen «*Adimen Artifiziala Feminista izan daiteke?*» erakusketaren sormen prozesuan. Mugarik Gabek eskaini zuen analisi kritiko feminista eta jasangarritasunezkoa; horrek galderak sorrarazten dizkigu AAk giza eskubideen inguruan dituen inplikazioen artean. Erakusketa honen baitan, Medellineko Corporación para la Vida Mujeres que Creanek dinamizatu zuen indarkeria digitalei eta «patriarkatu digitalean» AAk duen dimentsioari buruzko mahai-inguru bat. Erakusketaren inguruko ekintza pedagogikoak ere antolatzen lagundu genuen emakumeen eta gazteen kolektiboekin batera.



MEMORIA ERAIKIZ

Ildo honetan landutakoari jarraipena eman diogu hainbat ikastetxetako ikasleekin. Urtarrilean garatu genuen Memoria Eraikiz proposamen artistikoa zein ondorengo hausnarketa Santa María de Cayón (Cantabria) ikastetxean, batxilergoko 4 talderekin eta urrian Basauriko Urbi ikastetxeko 6 talderekin.


ABORTUA, GIZA ESKUBIDE BAT



Otsailean zehar, abortuaren aldeko eta nazioarte zein toki mailan dauden borrokarako estrategia ezberdinen aldarrikapenean oinarritutako kanpaina bat sustatu genuen. Horretarako, gizartearen eta kolektiboen sentsibilizazioa landu genuen, El Salvadorreko Beatrizen kasu ospetsuaren inguruko erakusketa baten bidez ezagutzera emanez herrialdeko, Erdialdeko Amerikako eta Europako egoerak.

Bestetik, mahai-inguru eta elkarrizketa bat antolatu genuen kazetariekin, betiere El Salvadorreko Delmy Cortez eta Morena Herreraren, Europako My Voice My Choice kanpainako Kika Fumeroren eta Marienea Elkarteko Oihane Lopezen laguntzarekin; azken honek Basauriko 11k-en inguruan hitz egin zigun. Beren esperientziak oinarritu ziren mugimendu feministek dituzten aurre egiteko estrategietan, Gasteiz eta Basauriko jendearekin partekatu ziren eta komunikabide zein sare sozialetan hedatu ziren.


DENERA IRITSI EZINAREN AURREAN, LAN-POLITIKA FEMINISTA



2025ean prozesu horrekin jarraitu dugu REAS Euskadi eta Setem Hego Haizearekin batera. Gure antolatzeko prozesuak indartzeaz gain, aurten antolatu nahi izan dugu jardunaldi publiko bat beste eragile sozial batzuekin aurrerapausoak partekatzeko.

Urrian antolatutako jardunaldiak oso harrera ona izan zuen eta Bilboko La Bolsa aretoa bete zen. La Ciutat Invisiblerekin jardunbide egokiei buruzko mahai-inguru batez gozatu genuen. Bertan eztabaidatu genuen gure prozesuaz, jardunbide egokiak detektatu genituen lan egiteko espazio kolektiboez eta etorkizunerako beharrez.

ORBAN KOLEKTIBOAK. INDARKERIA MATXISTEN ERREPARAZIOARI BURUZKO ESPERIENTZIEN IKASKUNTZAK



Indarkeria matxisten lau erreparazio esperientziaren ondorioa da ikerketa hori eta bere helburua da hausnartzea, horiengandik ikastea, sozializatzea eta inspirazioa lortzea prozesu berriak praktikan jartzeko, bai gizarte zibil antolatutik bai instituzioetatik.

Jarri dugun erronka da elkarren artean zerikusirik ez duten esperientziak ikertzea, modu horretan erreparazio prozesuak lantzeko modu desberdinak ezagutzeko eta horiengandik guztiengandik ikaskuntzak sortzeko. Aztertutako esperientziak dira Andoaingo Udala, erreparazio esperientzia bat alderdi sozialetik; bizirauleen elkarteek eta Mugarik Gabek bultzatutako Kintsugia; eta Manuelaren kasua El Salvadorreko Estatuari aurre egiten. Guztiei eskertzen diegu haien irekitasuna eta kolaborazioa.

Bizkaiko hainbat tokitan argitalpena zabaldu ostean, 2026an jarraitu genuen ikaskuntzak partekatzen, horien protagonistekin batera apirilean Basaurin egin ziren jardunaldi batzuetan.

ERBESTERATZEA ETA ERRESISTENTZIA FEMINISTARI BURUZKO ELKARRIZKETAK. NIKARAGUA KASUA





Aurten kaleetara eraman nahi izan dugu Nikaraguako erbesteratzearen egoera eta horrekiko egiten ari den erresistentzia toki desberdinetatik, bai eta bizipenak zabaldu lekukotzen eta artearen bidez.

Gure ideia zen artea eta dokumentala erabiltzea sentsibilizaziorako tresna gisa, nazioarteko arreta Nikaraguarengan mantentzeko, babes instituzionala eta soziala sustatzeko eta errepresioak zein erbesteratzeak kaltetutako pertsona horien ahotsak ahaztu ez daitezen ziurtatzeko.

Guzti hori «Florecerás Nicaragua» dokumentalaren eta «Casarse por papeles es verdadero amor» antzerkiaren bidez egikaritu da. Bizipen pertsonalak eta kolektiboak kontatu ez ezik, elkarrizketa kritiko bat sustatu zen, zeinen bitartez ikusleek ulertu ahal izan zuten egoeraren konplexutasuna eta Nikaraguako komunitatearen erresistentzia, zehazki hango emakumeena.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA

EL SALVADOR

2025ean, El Salvadorreko testuinguru soziopolitikoa markatu zuen Salbuespen-erregimenaren jarraipenak, 2022an El Salvadorreko Legebiltzarrak onartua eta modu sistematikoan luzatua, bai eta Atzerriko Eragileen Legea indarrean sartzeak ere. Erakundeak are gehiago asaldatu dituen araudi horrek nazioarteko lankidetza jasotzen duten erakundeen gaineko kontrol, miaketa eta gainbegiratze mekanismo berriak ezarri zituen, eta horrek ezjakintasun juridiko eta presio finantziarioko klima eragin du giza eskubideen erakunde, kolektibo feminista eta LGTBIQ+ taldeentzako. Batzuek erabaki dute izena ez ematea eta existitzeari uztea, beste batzuk erbesteratu dira eta beste batzuek administrazio-prozesu amaigabeen ostean lortu dute izena ematea erregistro berrian.

Hori guztia gehitu zitzaion berme konstituzionaletan murrizketak izandako eta espazio zibiko ahuldua zituen testuinguruari. Lege berriak subjektu politiko kritikoen estigmatizazioan sakondu zuen eta eskubideen babesa kanpoko esku-hartzeekin lotzen dituzten narratibak indartu zituen.

Esparru horrek zailtasun handiagoak ekarri dizkie antolaketaren iraunkortasuna, intzidentzia politikoa eta akonpainamendu komunitarioari dagokionez feminismoa eta LGTBIQ+ mugimenduei, historikoki elkartasun eta lankidetza sareen bidez euren jarduketa sostengatu izan baitute.

COLECTIVA FEMINISTA

2025ean zehar, emakumeen, giza eskubideen defendatzaileen eta LGBTIQ+ pertsonen erakundeek bultzatutako antolaketa eta artikulazio prozesuak indartu eta lagundu ziren.

Testuinguru honetan, non espazio zibikoaren murrizketa eta handituz doan eskubideen defentsaren estigmatizazioa gertatzen ari diren, Babes Integral Feministaren indartze politiko eta teknikoa lehenetsi zen, testuinguruaren analisi kritikoa, agenda komunen eraketa eta espazio nazional zein nazioartekoetan intzidentziarako ekintzak sustatuz. Herrialdeko mendebaldeko eta ekialdeko eskualdeetako prozesuei arreta berezia eman zitzaien, baita erdialdeko Amerikako sareak antolatzeari ere, hala nola Giza Eskubideen



Emakume Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimenari.

Halaber, formakuntzarako eta posizionamendu politikorako dinamikak lagundu ziren El Salvadorreko Unibertsitatean, genero indarkeriarekiko prebentzioa eta arreta indartzeko giza eskubideen eta feminismoaren ikuspuntutik.

LAS DIGNAS



2025ean, Las Dignas taldeak jarraitu zuen justizia ekonomikora, autonomiara eta emakumeen zein gazte anitzen gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eskubideetara bideratutako eskualdeko prozesuei babesa ematen.

San Salvadorreko departamenduko hainbat udalerritan, baita Usulután eta La Pazen ere, lidergoa indartzea, kolektiboki antolatzea eta zaintzaren zein ekofeminismoaren ekonomiaren ikuspuntutik egindako intzidentzia publikoa lehenetsi ziren.

Gizarte mobilizazioko eta erakunde publikoekin elkarrizketarako estrategiak lagundu ziren, justi-

zia ekonomikoa eta ingurumenekoa udal politiketan posizionatzeko.

Modu osagarrian, indarkeria egoeran dauden emakumeentzako arreta eta akonpainamendu gaitasunak indartu ziren, baita kriminalizazioaren aurkako autobabes tresnak ere, eskubideen defentsarako baldintza seguruagoak eta jasangarriagoak sustatuz.

NIKARAGUA



Nikaraguako 2025eko egoera soziopolitikoaren ezaugarri izan zen Daniel Ortegaren erregimenaren autoritarismoa, zeinak ezarri duen Estatuko erakundeen, komunikabideen eta herritarren parte-hartze espazioen gaineko kontrola. Disidentzia politikoaren errepresioa gobernatzeko ardatz nagusia da, horren adibide dira atxiloketa arbitrarioak, oposizioko lidergoen kriminalizazioa eta elkartzeko, adierazteko eta protesta egiteko askatasunaren gaineko muga zorrotzak. Testuinguru honek modu bereziki kritikoan eragin die erakunde feministei, giza eskubideen defendatzaileei eta LGTBIQ+ kolektiboei, erasoei, jazarpen judizialari eta nazioarteko finantzamendu zein lankidetzan murrizketei aurre egiten baitiete.

Egiturazko genero indarkeriak elkartzen dira erregimenak duen ahots kritikoak isilarazteko estrategiarekin, emakumeen, gazteen eta herritar anitzen gizarte-, ekonomia- eta politika-bazterketan sakonduz. Giza eskubideak babesteko nazioarteko espazioak ahuldurik daude, eta lege zein politika publikoek ezin dute eraginkortasunez bermatu emakumeen autonomia ezta jasaten dituzten indarkeriekiko arreta. Egoera honen aurrean, feminismoak eta LGTBIQ+ mugimenduek indartu dituzte erresistentzia kolektiboko, eskualde-antolaketako eta formakuntza politikoko estrategiak, haien ekintza komunitarioa mantentzeko, bidegabekeriak ikusarazteko eta eskubideak exijitzeko, zaurgarritasunak, gainbegiratzeak eta ekintza-askatasunaren etengabeko mehatxuak markatutako egoera horretan.

Honen ondorioz, ez dugu lankidetza lan zuzenik izan Nikaraguan, baina babesa eman diegu hainbat eskualdetako sareri eta erbesteko prozesuri.

KOLONBIA

ACINEKO ETA CAUCAKO INDIGENEN ESKUALDE KONTSEILUA (CRIC)

Kolonbiaren ezaugarri da kultura- eta biologia-aniztasuna, 80 herri indigena baino gehiagoren etxe baita. Aberastasun horrek baditu, aldi berean, desberdintasun sozial sakonak, egiturazko indarkeriako historia eta milioika biktima utzi dituen konpondu gabeko gatazka armatua. Horren eragina pairatu dute bereziki landa-eremuko neska eta emakumeek, sexu-indarkeriaren, bortxazko errekrutamenduaren eta feminizidioen helburu direlako.



Caucako iparraldeko Nasa herri indigenak aurre egiten dio alderdi anitzeko eta egiturazko krisiari, estatuaren utzigabekeriak, erresistentzia indigenak eta indarkeria armatuak markatutako lurraldean, non herri gisa bizirautea, lurraldean integratzea eta antolaketa zein kultura formek jarraitzea mehatxatzen dituzten.

Estatuak CRICa aitortu eta Gustavo Petroren gobernupean elkarrizketarako espazioak indartu dituen arren, eraso, mehatxu eta estigmatizazioaren helburu izaten jarraitzen du eskualdea. Lurraldearen babeserako ezinbestekoak izan dira ACIN bezalako erakundeak, baina eragile armatuengandik indarkeria larriak jasan izan dituzte, narkotrafikoari eta urrea, egurra, azukre-kanabera zein ura bezalako baliabide naturalen ustiapenari lotutako legez kontrako eragile berriek nahi duten lurraldearen kontrolagatik. Gertakarien artean bortxazko desplazamenduak, erailketak eta mehatxuak daude, betiere eskualdeko komunitate indigenen jabegokoak diren antzinako lurraldeak hartzeko helburuarekin.



Testuinguru horretan, Caucako Indigenen Eskualde Kontseilua (CRIC) eta Ipar Caucako Kabildo Indigenen Elkartearekin (ACIN) batera, CRIC osatzen duten hamaika herrietara bideratutako babes eta laguntza humanitarioko estrategia integrala burutzen ari dira. Lanaren helburua bi entitateen barne-antolamendua indartzea eta Kiwe Thegnas lurraren defendatzaileak ahalduntzea da, enpresa transnazionalek eta krimen antolatuko taldeek ezarritako bipiltzearen aurrean erresistentzia azaltzen duten herrien babesa bermatu ahal izateko.

Estrategia horren osagai gakoa Kiwe Thegnas emakumeak ahalduntzea da, bizitzaren defentsan ezinbesteko rola baitute. Zaintza kolektiboaren buru izateko eta ekintza politikoak bere gain hartzeko ohiko zaintza-rolekin apurtzen ari dira. Horregatik, kriminalizatu eta seinalatu egiten dituzte, baina, gizonezko kideekin batera, lurra eta lurraldea defendatzen jarraitzen dute naturarekin harmonia babesteko eta haien komunitateen bizitza bermatzeko xedearekin. Kulturarteko aliantza estrategikoen sare sendoa ehuntzea beste giltzarrietako bat izan da, non ahaleginak antolatu diren nekazarien eta afro-ondorengoen erakundeen artean lurraldea, bizitza eta eskubide kolektiboak defendatzeko.

Lerro berean, CRICeko *Emakumea Programatik*, Caucako emakume indigenen eskubideen defentsaren alde lanean jarraitu zuten. Emakumeenganako Indarkeriaren Behatokiak indarkerien kontaketari eta horiek ikusarazteko kanpainari amaiera emateko, podcast formatuko buletina argitaratu zuen eta atalen bidez emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinak kontatzen zituzten. Podcasta zenbait irrati komunitariotan hedatu zen eta ahozko formatuak lurraldeetan eragin handiagoa izan zuen.

Gainera, urtean zehar, emakumeen parte-hartze politikoa indartzen jarraitu dute.

TREBAKUNTZARAKO HERRI INSTITUTUA (IPC) ETA ANTIOKIAKO ELKARTE INDIGENA (OIA)

Antiokiako Elkarte Indigenaren (OIA) pean antolatuta dauden Antiokiako komunitate indigenekin lanean jarraituko dugu. Lana Trebakuntzarako Herri Institutuarekin (IPC) batera burutuko dugu, komunitate horien giza eskubideak indartzeko Bake Kontseiluaren ahalmenean konfiantza duen erakunde kidea baita.

Gure ikuspuntutik, nahi izan dugu emakume indigenen ekarpenak ikusaraztea eta bultzatzea, haiek direlako bakea eraikitzen gehien laguntzen



ari direnak. Horretarako, genero oztopoak eta erresistentziak identifikatzeko, barne-hausnarketa sustatzeko eta aldaketarako ibilbide bat eraikitzeko ekintza humanitarioak egin dira, betiere komunitate horietako, eta bereziki emakumeen, behar zehatzak identifikatuz, haien eskaera eta errealitateetan oinarritutako intzidentzia politikoko estrategiak garatzeko asmoz.

MUJERES QUE CREAN KORPORAZIOA



Mujeres que Creanek 2025ean emakume liderren indartze prozesuak eta Antiokiako emakume erakundeak lagundu zituen kulturarteko ikuspuntu ekofeministatik, askotariko indarkeria orokortuko testuinguruen aurrean. Babes, autozainketa eta autobabes gaitasunen garapena lehenetsi zen, horien artean zeuden emakume liderren aurka dokumentatutako genero indarkeriak, sormen artistikoko laborategiak, aurrez aurreko zein online trukeak eta antzinako zaintza praktiken inguruan formakuntza espazioak, mintegiak eta elkarrizketarako guneak. Modu osagarrian, intzidentzia eta mobilizazio estrategiak bultzatu ziren Urabá eta Oriente azpieskualdeen, Medellineko eta Aburrá haraneko udalerrien agenda politiko eta sozialean kokatzeko bizitzaren babesa, zaintza eta zibertzaintza. Ekintza horiek indartu zuten erakundeen arteko ehun soziala eta aliantzak, defendatzaile, GKEetako profesional eta erakunde publikoentzat ingurune babesle eta osasungarriak sustatuz eta aktibismo osasungarria, hezkuntza zein komunikazio feminista eta bidezkoagoa nahiz berdinzaleagoa den gizarte baten eraikuntzarako jakintza estrategikoak sortuz.

GUATEMALA

Bernardo Arévalo gobernuko Presidentearen bigarren urtea da 2025a eta botere betearazletik aurrerapauso gutxi islatu dira, makineria ustelen erasopean etengabe baitago, zehazki Ministerio Publikoa, Erakunde Judiziala, Erakunde Legegilea eta Konstituzionaltasun Gorteak lagunduta. Botere Betearazleak aurre egin dion egoera horrek hezkuntza, osasuna, ekonomia eta segurtasuna bezalako oinarrizko eskubideen estaldura erraztuko duten politika publikoak bultzatzea eragotzi du. Herritarrek konfiantza galdu dute presidentearengan, eta horrek gobernua gero eta gehiago ahultzen du. Hasieran herriarentzako itxaropena izan zena, gaur mesfidantza bihurtu da, baina, gertatutakoak, askotan, ustelen hitzarmenen estrategiak izan dira.

Donald Trump 2025eko urtarrilean iritsi zenean kezka eta ezjakintasuna eragin zituen bereziki migratzaile guatemalarrengan; Guatemalako Kontsulatuen Sareak emandako datuen arabera 3.256.000 inguru dira. Guatemalak eraginak pairatzen ditu, migratzaileak direlako herrialdeko ekonomiari ekarpena egiten diotenak, langabezia tasa altuagatik haien komunitateak atzean utzi dituzten horiek.

Botere Judizialak, Ministerio Publikoak eta Konstituzionaltasun Gorteak guztiz botere paralelo eta ustelen alde egiten dute. Preso, erbesteratu eta prozesatuak egoten jarraitzen dute hainbat Autoritate Komunitario, kazetari eta Justizia eragile, horien artean: Luis Pacheco, Hector Chaclán, José Ruben Zamora, Stuardo Campo, eta prozesu judizialetan jarraitzen dute Leocadio Juracán, Ramón Cadena, Claudia González, Virginia Laparra eta Esteban Toc, beste askoren artean. Kriminalizazio eta judizializazio honen helburua da krisia, beldurra, kooptazioa eta errepresioa eragitea gizarte-mobilizazioan, eskubide indibidualak zein kolektiboak defendatzen dituen pertsona zintzo oro kriminalizatzea eta jazartzea, hala nola funtzionarioak, justizia eragileak, epaileak, fiskalak, abokatuak, gizarte mugimenduen buruzagiak eta autoritate komunitarioak.

Hala ere, eskualde eta toki mailan erakunde eta autoritate Maya eta Xinkek eta estatu zein eskualdeko konbergentziek haien iritzia adierazi dute ezagutza, formakuntza eta eskubide kolektiboen erabilerarako prozesuak babesteko eta bultzatzen jarraitzeko, bereziki demokraziaren eta herrientzako justiziaren defentsarako egiturazko aldaketak ekartzen dituzten horiek.

Zona Reinako kasuan, argindar komunitarioarekin ezarri dute erresistentzia. Haien lurraldea kaltetzen duten enpresen aurka borrokatzeko modu bat izan da eta aurten 23 urte betetzen dituzte antolaketa komunitarioaren bidez argindar propioa izaten. Chilam Balamek borrokatu du toki sakratuen defentsaren alde eta toki sakratuen legea indargabetzea lortu zuten, pribatizatu nahi zutelako. Pribatizatu eta toki turistikoa bilakatu nahi zuten Tojil zeremonia zentroa ere defendatu zuten haiek, horrek zuhaitzak moztea ekarriko lukeelako.

ASECSA

Trantsizio ekologikoko eta toki zein mundu mailan Ekonomia Berderantza igarotzeko ekimenen esparruan, eskubideen eta naturaren defentsan eragina duen programa berri bat abiatu dugu 2025ean, arreta berezia jarriz herri indigena, emakume eta gazteen eskubide indibidual zein kolektiboen babesean.



Urte honetan zehar klima-krisiari erantzuteko gaitasuna sendotuko da klima-justiziaren ikuspuntutik. Hala Guatemalan nola Euskal Herrian, erresistentzian dauden komunitate eta erakundeei bideratutako formakuntza prozesuak garatzen hasi gara, horrela munduko klima-krisiaren aurrean daukaten analisi kritikorako eta ekintza kolektiborako gaitasuna sendotuz, eskubide indibidual zein kolektiboen defentsan herri indigenek duten oinarrizko zeregina aitortuz eta mundu mailako herritartasuneko zein ingurune-justiziarako ikuspuntua sustatuz.



Herri Indigenen bufetearekin lan egiten hasi da kriminalizatutako defendatzaileen akonpainamendu eta defentsa juridikorako.

UK'UX B'E

Cunen-en, Quiché-ko departamenduan, garapen komunitarioko komiteetan emakumeek parte har dezaten sustatu da, emakume gehiagorekin kontatzeko eta haien beharren alde egiten dituzten proiektuak lehenetsi ahal izateko. Horretarako, lau komunitatetako emakumeekin bilerak eta formakuntzak egin ziren, eta gero emakumeen komitera batu ziren. Beraz, esan dezakegu esparru publikoan CUNEN udalerriko emakumeek eskubideen erabilera bermatzeko espazio komunitarioetan duten antolakuntza eta parte-hartzea indartu dela.

Gainera, aurreko urtean hasitako formakuntza eta gaitasunak indartzeko prozesuarekin jarraituz, komunitateko emakume komunikatzaile maiek produzitutako ikus-entzunezko materialak sortu eta zabaldu dira.



Chilam Balam, Uspantango Zona Reina eta Uk ‘ux B’ e erakundeen indartzea babestu dugu, batzarren, komunikazio plan baten eta intzidentzia plan baten bidez, lurraldea eta naturaren eskubideak defendatzeko jarduera komunitarioak eginez, non komunitateek gehiago parte hartu duten, eta komunikaziorako zein intzidentziarako ibilbide bat marraztea ahalbidetu dute.



Bestalde, triptikoak egin ziren eta Santa Cruz de Quichéko Alkatetza Indigenerako egoitza bat eraiki zen, Mayab justizia erabiltzean komunitateei akonpainamendu hobea ematea ahalbidetzeko.

Uk’ux B’ek jarraitu du beste erakunde nazionalak antolatzen, hala nola parte-hartzea eta ezagutzak indartzeko bai eta eskubideen defentsa artikulatzeko toki, nazio eta nazioarte mailako intzidentzia espazioetan.

SECTOR DE MUJERES

Lurraldeko formakuntza prozesu feminista ezarri zen emakume, gazte, defendatzaile, maia, xinka eta mestizekin Quetzaltenango-n. Segurtasun digitala; emakume, gazte eta nesken aurkako indarkeria eta arrazakeria; IKTak; eta Emakumeen aurkako indarkeria eta arrazakeria saihesteko zaintza zein autozainketa feminista jorratzen zuten tailerrak egin ziren. Aurrerapauso esanguratsuak eman ziren emakume gazte eta defendatzaileak antolatzeko eta indartzeko. Metodologia parte-hartzaile, kulturarteko eta feministen alde egiteagatik indartu ziren lidergoak, babes-sareak sortu ziren eta begirada komunitarioa zein giza eskubideak kontuan hartuz indarkeria eta arrazismoa saihesteko proposamenak finkatu ziren.



Ikaskuntza nagusien artean nabarmentzen dira biziraulеei ematea etengabeko akonpainamendua, gazteen intzidentzia politikoko estrategietan sakontzeko beharra eta erakunde publikoekiko lana zabaltzea, egiturazko indarkerien aurrean erantzun integralagoak eskatzeko.

CANICAS

